2024ko azaroan erregistratutako langabezia

2024ko azaroan, LANBIDEren bulegoetan erregistratutako langabeen kopurua 603 pertsonakoa izan da; % 0,56 jaitsi da, 107.894 pertsonatan kokatuz. Azaroan honetan, 2013tik langabeziaren zifrek behera egiteko dagoen joera mantendu egin da, honela langabeen kopurua murriztu egin da hilabete honetan, nahiz eta azaroko beherakada txikiena izan den aztertutako seriean.



	aza.-10	aza.-11	aza.-12	aza.-13	aza.-14	aza.-15	aza.-16	aza.-17	aza.-18	aza.-19	aza.-20	aza.-21	aza.-22	aza.-23	aza.-24
Saldoa	706	2.373	2.991	-3.567	-2.093	-2.734	-3.481	-1.763	-916	-1.564	-6.035	-650	-1.034	-1.493	-603

Urte arteko saldoaren bilakaerak erakusten du -258 langabe gutxiago daudela (-%0,24) iazko azaroko kopuruekin alderatuta. Horrela, urte arteko saldo negatiboa erregistratu da bigarren hilabetez jarraian, baina nabarmen txikiagoa (-1.148, 2024ko urrian); 2024ko maiatzetik urrira arte ez zen saldo negatiborik erregistratu urte arteko konparaketan. Azaroko urte arteko saldoei erreparatuz, 2014tik ohiko joera izan da azaroetan urte arteko saldo negatiboak erregistratzea (nabarmen handiagoak izan arren), 2020ko azaroko kasu puntualean izan ezik, saldo positiboa erregistratu baitzen orduan.

Gaur egun erregistratutako langabeen kopurua 71.447ra dago 2013ko martxoko maximo historikotik, 2008an hasitako krisiaren unerik txarrenean. Gaur egun, 2007ko ekainean baino 36.939 langabe gehiago daude; orduan erregistratu zen azken hamarkadetako gutxieneko historikoa.

Beste azaro batzuetako balio maximo eta minimoei dagokienez, 2024ko azaroko langabeen kopurua 66.806 txikiagoa da 2013koa baino, eta 33.462 handiagoa 2007ko azarokoa baino.



• SEXUA

Hileko alderaketan, sexuaren araberako datuak kontuan hartuta, langabeziak behera egin du bi kasuetan, baina emakumeen kasuan joera hobea izan da: gizonak (-85 pertsona; -% 0,19ko jaitsiera) eta emakumeak (-518 pertsona; -% 0,83ko beherakada). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonen kasuan bakarrik jaitsi da langabezia (-379; -% 0,82). Emakumeek 121 langabe gehiago dituzte (+%0,20). Horrela, saldo negatibo osoa gizonetatik dator.

• ADINA

Hileko saldoan, langabeen kopuruak behera egin du hiru adin-tarteetan, nahiz eta 30 urtetik beherakoen taldea izan den beherakada handiena izan duena (-287; -% 1,55), ondoren 30-44 urteko taldea dago(-% 214; -% 0,70) eta, azkenik, 45 urtetik gorakoak (-% 102; -% 0,17). Oro har, adin-tarte guztietan, emakumeen portaera gizonena baino hobea izan da. Hazkunde bakarra 45 urtetik gorako gizonen artean izan da.

Urte arteko saldoan, aurreko hilean bezala, 30 urtetik beherako gazteek izan dute bilakaera-daturik txarrena: + 753 langabe gehiago aurreko urtean baino (%4,31ko igoera). Aurreko hilean bezala, 45 urtetik gorakoek izan dute jaitsierarik handiena: 562 langabe (-%0,94). Ondoren, 30-44 urtekoen taldea dator, 449 langabetu gutxiago baitaude (-%1,45). Oro har, adin-tarte guztietan, gizonen portaera emakumeena baino hobea izan da

• JARDUERA EKONOMIKOA

Datua Sektoreka hartuta, hileko saldoan, langabeen jaitsierarik handiena izan duen sektorea zerbitzuak izan dira (- 674; -% 0,88), eta ondoren Industria (- 128; -% 1,23). Hazkunderik handiena aurretik enplegurik ez zutenen artean erregistratu da (+181; +%1,29); ondoren, eraikuntzan (+10; +% 0,17) eta lehen sektorekoan (+8; +%0,39).

Urte arteko saldoan, eraikuntzaren sektoreak ditu datu onenak, bai balio absolutu zein erlatibotan (-387; -%6,24). Igoera izan duen atal bakarra aurretik enplegurik ez zutenen artean izan da (+726; + % 5,37).

Xehetasun handiagoz, azken hilabetean langabeziak behera egin duelako gehien nabarmentzen diren jarduerak hauek izan dira:

O 47 Txikizkako merkataritza	-182
o 85 Hezkuntza	-154
o 81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	-79
o 87 Egoitza-establezimenduetako laguntza	-71
o 82 Bulegoko administrazio-jarduerak eta beste enpresa laguntzaile batzuk	-62
o 56 Janari- eta edari-zerbitzuak	-56
o 86 Osasun-jarduerak	-47
o 25 Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena izan ezik	-41
o 94 Elkarte-jarduerak	-35

Azken hilabetean erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:

o Aurreko enplegurik gabekoak	181
o 55 Ostatu-zerbitzuak	72
o 84 Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza	37

o 41 Eraikinen eraikuntza	34
o 97 Etxekoen unitateak etxeko langileen enplegatzaile gisa	28

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan, iraupen luzeko langabezia 45 pertsonatan murriztu da, eta iraupen laburreko langabezia, berriz, 558 pertsonatan. Iraupen luzeko langabeen kopurua % 48,9 da, urrian baino 0,3 puntu gehiago.

Termino erlatiboetan, urteko erreferentzian iraupen laburreko langabeen kolektiboak gora egin du, 96 langabe gehiago baitaude (+%0,17), eta iraupen luzeko langabeen kolektiboak % 0,67 egin du behera (-354 langabe).

Iraupen luzeko langabeen profil nagusia Bizkaian dago, eta 44 urtetik gorakoen artean. Azken hilabeteko bilakaera erlatiborik onena emakumeei, 44 urtetik gorako pertsonei eta Gipuzkoan bizi direnei dagokie. Iazko datuekin alderatuta, iraupen luzeko langabeziak gora egin du 30 urtetik beherakoen artean (+186, +%4,0) eta emakumeen artean (+83, +%0,3). Lurralde historikoen arabera, Araba da iraupen luzeko langabeen kopuruak behera egin duen lurralde bakarra, aurreko urtean baino 450 pertsona gutxiago baitaude (% 4,7ko jaitsiera).

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Hil honetan, pertsona langabeen kopuruak behera egin du lurralde guztietan. Araba izan da jaitsiera erlatibo handiena (-%1,02), gero Gipuzkoan (-%0,59) eta azkenik Bizkaian (-%0,40).

Urte arteko saldoan, Araba da langabeen kopurua jaitsi den lurralde bakarra (- 603; -% 3,19). Gipuzkoan 233 pertsona gehiago izan dira (+%0,82); Bizkaian, berriz, +112 gehiago (+%0,18).

Hilabete honetan, langabeen saldoa negatiboa izan zen da euskal hiriburuetan, eta Donostiakoa izan da jaitsiera erlatibo handiena izan duena (-%0,93); ondoren Gasteiz (-%0,90) eta Bilbo (-%0,38). Urte arteko datuei erreparatuz gero, Donostian bakarrik jaitsi da langabezia (-103 pertsonatan, %1,54ko murrizketa). Bilbon 147 pertsona gehiago daude langabezia egoeran (+%0,70) eta Gasteizen +93 gehiago (+%0,6).

Azaroan erregistratutako langabezia-tasa handienak izan dituzten udalerriak Sestao (% 15,21), Amurrio (% 14,65), Alonsotegi (% 14,47), Oion (% 14,39) eta Ortuella (% 14,15) izan dira.

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2024ko azaroan, 35.238 langabek jaso zuten langabezia-prestazioren bat, aurreko hilean baino 25 gutxiagok. Gaur egun, langabeen % 32,7k langabezia-prestazioren bat jasotzeko eskubidea du. Langabeen % 18,8k (20.323 pertsona) kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute, aurreko hilean baino 0,3 puntu gehiago. % 12,77k (13.775pertsona) langabezia-subsidioren bat kobratzen du. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa da babes handiena duen lurralde historikoa (% 35,3ko tasa), Bizkaian % 32,1 eta Araban % 30,3.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, langabeziagatiko estaldura-tasa 0,16 puntu igo da, eta iazko azaroarekin alderatuta, 0,06 puntu jaitsi da.

• JATORRIA

Langabezia egoeran dauden pertsona guztietatik 20.589 (% 19,1) atzerritarrak dira. 2024ko azaroarekin alderatuta, langabeziak gora egin du atzerritar jatorriko pertsonen artean: +232 (+%1,14). Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean 835 langabe gutxiago daude (-%0,95), eta hil honetako kopurua 88.140 langabetu dira.

Urte arteko bilakaeran, atzerritar jatorriko langabeak % 4,38 gehitu dira, eta espainiar nazionalitatea duten pertsonen artean % 1,27 murriztu dira.

Atzerriko langabeen % 32,3 Afrika iparraldekoak dira, % 27,9 Latinoamerikakoak, % 15,2 Europako Esparru Ekonomikokoak, % 11,1 Saharaz hegoaldeko Afrikakoak eta % 6,8 Asiakoak.

• IKASKETA MAILA

59.448 langabek, guztien % 55,1k, derrigorrezko hezkuntzako ikasketak dituzte. Talde horretan 14 langabe gehiago daude (+ % 0,02) hileko konparaketan eta -1.297 gutxiago (% -2,14) urtekoan.

Batxilergoko ikasketak dituzten langabeak langabetu guztien % 7,7 dira. Azken hilabetean, talde horretako langabezia % 1,94 murriztu da, eta azken urtean % -0,87.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 27.561 dira, guztizkoaren % 25,5. Ikasketa maila honetakoak izan dira daturik onenak eduki dituztenak hilabete arteko saldoan, 271eko saldo negatiboarekin eta, baita urte arteko aldean, % 3,66ko gehikuntzarekin.

Azkenik, langabeen % 11,7k, hau da, 12.609 pertsonak, unibertsitate-ikasketak dituzte, -182ko murrizketa izan dute hil artekoan (-%1,42). Aurreko urtearen aldean 140 pertsona gehiago daude langabezian (+%1,12).

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan langabezia % 0,62 jaitsi da, 16.036 pertsona gutxiago, eta guztira 2.586.018 langabe erregistratu dira; EAEn, berriz, erregistratutako langabezia % 0,56 murriztu da. Nafarroan % 0,32 igo da, Errioxan % 0,15, Kantabrian % 0,12 eta Gaztela eta Leonen % 1,27. Katalunian % 0,69 murriztu da, eta Madrilen % 1,52 jaitsi da.

Lan-eskatzaile langabeak 2024ko azaroan

	Aza-2024	Urr-2024	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	45.744	45.829	-85	-0,19
EMAKUMEZKOAK	62.150	62.668	-518	-0,83
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	18.224	18.511	-287	-1,55
GIZONEZKOAK	8.952	9.027	-75	-0,83
EMAKUMEZKOAK	9.272	9.484	-212	-2,24
25-44 URTE:				
GUZTIRA	30.573	30.787	-214	-0,70
GIZONEZKOAK	11.678	11.727	-49	-0,42
EMAKUMEZKOAK	18.895	19.060	-165	-0,87
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	59.097	59.199	-102	-0,17
GIZONEZKOAK	25.114	25.075	39	0,16
EMAKUMEZKOAK	33.983	34.124	-141	-0,41
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.047	2.039	8	0,39
INDUSTRIA	10.250	10.378	-128	-1,23
ERAIKUNTZA	5.819	5.809	10	0,17
ZERBITZUAK	75.526	76.200	-674	-0,88
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.252	14.071	181	1,29
LURRALDE HISTORIKOA:				

2024ko azaroan erregistratutako langabezia

ARABA	18.315	18.503	-188	-1,02
BIZKAIA	61.058	61.304	-246	-0,40
GIPUZKOA	28.521	28.690	-169	-0,59
EAE	**107.894**	**108.497**	**-603**	**-0,56**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bajo Bidasoa	3.721	9,8%	-55	-1,46	-47	-1,25
Oarsoaldea	3.167	8,5%	-59	-1,83	-61	-1,89
Donostia-S.Seb.	6.580	7,4%	-62	-0,93	-103	-1,54
Donost.Oeste	2.847	7,3%	-5	-0,18	89	3,23
Tolosaldea	1.800	7,4%	10	0,56	20	1,12
Urola Erdia	1.186	7,5%	2	0,17	28	2,42
Goiherri	1.647	7,6%	-12	-0,72	108	7,02
Alto Deba	2.408	7,9%	17	0,71	94	4,06
Bajo Deba	2.660	10,1%	-22	-0,82	33	1,26
Urola Garaia	1.065	8,7%	5	0,47	37	3,60
Urola Kosta	1.440	6,2%	12	0,84	35	2,49
GIPUZKOA	28.521	8,0%	-169	-0,59	233	0,82
Vitoria-Gasteiz	14.119	11,0%	-128	-0,90	93	0,66
Valle de Aiala	2.156	11,4%	-55	-2,49	-34	-1,55
Rioja Alavesa	568	9,9%	-18	-3,07	-10	-1,73
LLanada Alavesa	679	9,0%	5	0,74	7	1,04
Estrib. Gorbea	317	6,3%	8	2,59	33	11,62
Valles Alaveses	378	7,3%	-14	-3,57	-6	-1,56
Montaña Alavesa	134	8,1%	15	12,61	25	22,94
ARABA	18.315	10,7%	-188	-1,02	-603	-3,19
Gobela	4.257	8,3%	-28	-0,65	49	1,16
Txorierri	2.021	8,6%	-13	-0,64	16	0,80
Uribealdea	2.771	7,9%	-26	-0,93	-5	-0,18
Duranguesado	3.211	8,5%	16	0,50	141	4,59
Busturialdea	1.912	8,6%	-62	-3,14	-77	-3,87
Lea-Artibai	852	7,1%	19	2,28	-4	-0,47
Encartaciones	1.813	11,4%	-12	-0,66	-51	-2,74
Arratia-Zornotza	1.410	7,9%	31	2,25	48	3,52
Medio Nervion	1.252	9,4%	1	0,08	-25	-1,96
Bilbao	21.253	12,5%	-80	-0,38	147	0,70
Margen Izquierda	16.132	12,7%	-43	-0,27	94	0,59
Ibaizabal	4.134	10,0%	-51	-1,22	-210	-4,83
BIZKAIA	61.058	10,7%	-246	-0,40	112	0,18
CAPV	107.894	9,8%	-603	-0,56	-258	-0,24

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.